

Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak

Euskaltzaindiaren gomendioa

1 Herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak (izenlagun erreferentzialak edo erlazio-adjektiboak)

2 Erabilera-esparruak

3 Herritar-izen eta jatorri-adjektibo konposatu jasoak: bi izenez edo adjektiboz osatutako izenak edo adjektiboak (*afro-amerikar*)

4 Herritar-izen eta jatorri-adjektibo konposatuen idazkera

5 Herritar-izenak eratzeko bi bideak

6 Atzerriko leku-izenetatik herritar-izenak eratzeko gidalerroak

1 Herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak (izenlagun erreferentzialak edo erlazio-adjektiboak)¹

Lekuak izendatzen dituzten izen bereziak *toponimoak* edo *leku-izenak* dira. Haietatik, herritar-izenak sortzen dira eratorpenez. Adibidez:

Italia leku-izenetik, **italiar** izena sortzen da, hau da, Italiako herritarra:

- *Italiarren ohiturak. Italiar batekin ezkondua.*

¹ Letra larrien erabilerari buruzko oharra:

Herritar-izenak izen arruntak dira, eta jatorri-adjektiboak adjektibo arruntak dira. Beraz, batzuk zein besteak letra xehez hasita idaztekoak dira. Adibidez: *Etorri dira mauletarrak. Non daude belgikarrak? Zoragarria da italiar arkitektura. Jatexe txinatarrean afaldu zuten.*

Dena dela, baldin eta jatorri-adjektiboa pertsona baten izengoitia bada, letra larriz hasita idazten da, gainerako izengoitiak bezala (*Erik Gorria*). Adibidez: *Eszipion Afrikarra, Joan Damaskoarra, Basilio Mazedoniarra, Judas Galilearra.*

Era berean, jatorri-adjektiboa leku-izen baten parte bada, letra larriz hasita idazten da, gainerako adjektiboetan gertatzen den bezala (*Ibai Horria*). Adibidez; *Kongo Belgikarra, Ekialdeko Afrika Britainiarra, Sudan Anglo-egiptoarra, Anglo-normandiar uharteak.*

Baina, izenak sortzeaz gainera, izenlagun erreferentzialak (erlazio-adjektiboak) ere sortzen dira.

Adibidez:

Italia leku-izenetik, **italiar** izenlaguna sortzen da, hau da, Italiakoa dena edo Italiari dagokiona:

- *Italiar arkitektura. Gorritiren musikari italiar usaina dario.*

2 Erabilera-esparruak

Batzuetan, gainera, *-(d/t)ar* atzizkiaren bidez eratutako izenlagun erreferentzialaren erreferentzia ez da lekua, edo ez lekua bakarrik; hedaturaz, leku horretako kultura edo eragin-eremua, edo jatorriz leku horretakoa den hizkuntza ere izan daiteke erreferentzia. Adibidez, *frantziar literatura* ez da nahitaez Frantziakoa, baizik eta frantsesez egindakoa, nahiz eta Senegalen, Marokon edo Quebecen egin izan; *erromatar galtzadak* ez dira nahitaez Erromakoak, Erromatar Inperioaren mendeko edozein lurraldetakoak baizik².

-(d/t)ar atzizkiaren bidez eratutako izenlagunek, askotan, *(+gizaki)* motako izenei laguntzen diete. Adibidez:

- *Castelao galiziar idazlerik ospetsuenetako bat da.*
- *Orduan, italiar presidentea gaixotu egin zen.*
- *Bihar, frantziar diputatuak aurrekontuak eztabaidatzen hasiko dira.*
- *Unamuno bilbotar filosofoa*

Hala ere, *(-gizaki)* motako izenekin ere erabiltzen dira, jakina. Adibidez:

- *frantziar sinbolismoa, frantziar legeak*
- *errusiar ikonoak, errusiar formalismoa*
- *erromatar balantza, erromatar zenbakiak*
- *japoniar literatura, japoniar jantzia*
- *Zipreko Turkiar Errepublika*
- *norvegiar baleontziak*
- *irlandar folklorea*

² Badira, gainera, beste izenlagun erreferentzial batzuk *-(d/t)ar* atzizkiaren bidez sortuak hedaturaz, eta, gehienbat, zientziaren eta teknologiaren alorrean erabiliak, hala nola *bitar, hamartar, hirurogeitar, angeluar, boolear, newtondar euklidear, hamiltondar, nepertar, abeldar...* Halakoek jatorrian duten izena (erreferentzia) ez da leku-izen bat, izen arrunt bat edo pertsona-izen bat baizik.

Azken sail horretakoak —alegia, —*gizaki* motako izenekin erabiltzen direnak—, askotan, ezinbestekoak dira. Adibidez, garbi dago *jatetxe txinatarrek* esatean gehien-gehienetan ez dela adierazi nahi NONGO jatetxeak diren —Txinako jatetxeak—, baizik eta NOLAKOAK diren —Txinako gastronomia lantzen duten nonahiko jatetxeak—. Hala ere, adierazi beharrekoa da ezen, *-(d/t)ar* atzizkiaren bidez edozein leku-izenetatik izenlagun erreferentziala lor badaiteke ere, askotan ez dela beharrezkoa eratorpen bidezko izenlaguna eta nahikoa dela leku-izena leku-genitiboan deklinatzea (NONGO) izenlagun gisa erabiltzeko. Gure auzo-erdaretan leku-izenetatik eratorritako adjektiboak maiz erabiltzen direnez, batzuetan beharrik gabe erabilia ikusten dira era horretako izenlagun erreferentzialak (*narajas valencianas* / **oranges valenciennes** ⇒ ***laranja valentziarrak**), batez ere *auzo, herri, probintzia* gisako izenekin erabiltzen direnean; beharrik gabe, eta tradizioaren aurka. Adibidez:

- (1) *Zorrotza **auzo bilbotarra** iraganera itzuliko da asteburu honetan, Erdi Aroko Azokarekin.
- (2) *Mikelasagasti auditoriuma Anoetako **herri gipuzkoarrean** dago.
- (3) *Gure abiapuntua Artziniega **arabar herria** da.
- (4) *Segoviako **probintzia espainiarrean**.
- (5) *Urdaibai Busturialdea **bizkaitar eskualdean** kokatua dago.
- (6) *Azkoitiarrek gaur izango dute **kantxa donostiarrera** egokitzeko aukera.
- (7) *Eskulangintzako eta ostalaritzako postuek **kale gasteiztarrak** girotu dituzte.

Haien orde, hauek dira egokiak (hauek edo antzekoak):

- (1') **Bilboko Zorrotza auzoa** iraganera itzuliko da asteburu honetan, Erdi Aroko Azokarekin.
- (2') Mikelasagasti auditoriuma **Anoetan dago, Gipuzkoan**.
- (3') Gure abiapuntua (**Arabako**) **Artziniega herria** da.
- (4') **Espainiako Segovia(ko)** probintzian.
- (5') Urdaibai **Bizkaiko** Busturialdea **eskualdean dago**.
- (6') Azkoitiarrek gaur izango dute **Donostiako kantxara** egokitzeko aukera.
- (7') Eskulangintzako eta ostalaritzako postuek **Gasteizko kaleak** girotu dituzte.

Eta, hain nabarmenak ez izanik ere, beste hainbeste esan daiteke beste adibide hauetan ere:

- (8) *Frantziar estatuko* euskal etxeek bilera egin dute Alduden.
- (9) *Espainiar Konstituzioa* 1978koa da.
- (10) Atentatua *estatubatuar komunikabide* guztietako berri nagusia izan da.
- (11) *Venezuelar petrolioa* laster agortuko da.
- (12) Aurtengo lehorte gogorak agortu egin ditu *somaliar ibaiak*.
- (13) *Mindanao filipinar uhartean* gerrillak gogor eraso dio armadari.

Haien ordeez:

- (8') *Frantziako (estatuko)* euskal etxeek bilera egin dute Alduden.
- (9') *Espainiako Konstituzioa* 1978koa da.
- (10') Atentatua *Estatu Batuetako komunikabide* guztietako berri nagusia izan da.
- (11') *Venezuelako petrolioa* laster agortuko da.
- (12') Aurtengo lehorte gogorak agortu egin ditu *Somaliako ibaiak*.
- (13') *Filipinetako Mindanao uhartean* gerrillak gogor eraso dio armadari.

Horregatik ez zaio bide horri jarraitu, adibidez, leku-izen hauen euskarazko izendapenak arautzean, erdal izendapenetan adjektiboak erabiltzen badira ere:

- *Asturiasko mendigunea* (es *macizo Asturiano*; fr *Massif asturien*)
- *Austrialiako Badia Handia* (es *Gran Bahía Australiana*; fr *grande baie australienne*)
- *Valentziako Erkidegoa* (es *Comunidad Valenciana*; fr *Communauté valencienne*)

Hala ere, bide hori erabili da esanahia NONGO ez baizik eta NOREN edo NOREN MENDEKOA edo NOLAKOA denean. Adibidez:

- *Polinesia Frantsesa*
- *Ekialdeko Afrika Britainiarra*
- *Kongo Belgikarra*

3 Herritar-izen eta jatorri-adjektibo konposatu jasoak: bi izenez edo adjektiboz osatutako izenak edo adjektiboak (*afro-amerikar*)

Jatorria adierazten duten adjektiboen artean, azpimultzo berezi bat osatzen dute herritar-izen eta jatorri-adjektibo konposatu jasoek. Gure inguruko hizkuntza guztietan erabiltzen dira (frantsesa, gaztelania, ingelesa, italiara, katalana, portugesa, alemana...). Bi herritar-izen edo jatorri-adjektibo koordinatu dira, baina lehenengoa, ezkerrekoa, forma jasoan agertu ohi da, *-o* letraz amaitua³. Hala, herritar-izen edo jatorri-adjektibo horiek forma berezia hartzen dute hitz-elkarketaren lehen elementu gisa jokatzeko dutenean. Hau da, ia aurrizkitzat har litezke, gehien-gehienek ez baitute autonomia lexikalik forma horretan, hau da, beste herritar-izen edo jatorri-adjektibo batekin batera agertzen baitira beti; dena dela, berez, hitz-elkarketaren eremuari dagozkio, ez eratorpenari. Esanahiari dagokionez, leku-izen bat (herrialde bat), herritartasun bat, etnia bat edo —adjektiboak direnean bakarrik— hizkuntza bat dute erreferente; edo haietako bat baino gehiago batera. Hona hemen ohikoenen zerrenda⁴:

Lekua edo etnia	Forma jaso
Afrika	afro-
Albania	albano-
Alemania	germano-
Arabia	arabo-
Austria	austro-
Danimarka	dano-
Errusia	erruso-
Europa / Europar Batasuna	euro-
Finlandia	fino-
Frantzia	franko-
Grezia	greko-
Hispania / Espainia	hispano-
Iberiar penintsula	ibero- ⁵
India	indo-
Ingalaterra	anglo-
Iran	irano-
Italia	italo-
latindarrak	latino-
Persia	perso-
Polonia	polono-
Portugal	luso-
Prusia	pruso-
Serbia	serbo-
Tibet	tibeto-

³ Fenomenoa orokorragoa da, eta ez da jatorri-adjektiboekin agortzen. Zientzian ere ugariak dira greziar jatorriko adjektibo jasoak: *sado* (*sadomasokista*), *hidro* (*hidrogeologiko*), *elektro* (*elektroeragile*), *magneto* (*magnetotermiko*), *termo* (*termodinamika*), *proto* (*protohistoria*), *sozio* (*sozioekonomiko*)...

⁴ Kontuan izan behar da forma jaso horietako batzuk bat datozela Antzinateko herri batzuen berezko izenekin; hau da, amaierako *-o* hori berezkoa da zenbait kasutan: *anglo*, *franko*, *greko*, *latino*, *turko*.

⁵ Hego Kaukasoko antzinako Iberiako erresuma ere izan daiteke erreferentea; adibidez, *hizkuntza ibero-kaukasorarrak*.

Lekua edo etnia	Forma jaso
Turkia	turko-
Txina	sino-
Ural	uralo-
Iberia	ibero-
Balkanak	balkano-

Herritar-izen edo jatorri-adjektibo konposatu jasoen bidea nazioartekoa da, eta euskaraz ere berdin baliatzekoa da. Herritar-izenei dagokienez, ohikoa da bide hori erabiltzea, dela izen gisa, dela izen bizidunei lagunduz. Adibidez:

- Emakume *afro-asiar* bati eman diote saria.
- Iheslari *albano-kosovarrak*.
- Gure amonetako bat *anglo-alemaniarra* zen.
- Erdi Aroko zientzialari *arabo-musulmanak*.
- Tenislari-bikote *austro-brasildar* bat eta *errumano-nederlandar* bat lehiatuko dira.
- Musikari *dano-suediarren* emanaldia.
- Zaldi *hispano-arabiarrek*.
- *Italo-suitzarrak* gero eta gehiago dira Suitzan.
- Arma-trafikatzaile *franko-alemaniar* baten istorioa.
- Kanadako 2001eko eroldaren arabera, *indo-kanadarrak* 713.330 ziren.
- Futbolari *italo-argentinarrak*.

Izen bizidunei laguntzen ez dietenean, berriz, ez dago zertan beti mimetikoki ekarri euskarara erdaretan ageri direnak. Batzuetan, bestelako aukerak erabil daitezke, eta komeni da haietara jotzea. Adibidez:

L'axe franco-allemand delakoa, euskaraz, *Frantzia-Alemania ardatza* esan daiteke (parafrasia ere bai: *Frantziaren eta Alemaniaren arteko ardatza*. Dena dela, esanahia bera da, baina luzeagoa da, ez da trinkoa).

La frontera austro-italiana delakoa, euskaraz, *Austria-Italia muga* esan daiteke (parafrasia ere bai: *Austriaren eta Italiaren arteko muga*. Hala ere, luzeagoa da, ez da trinkoa).

Adibidez, gerrak adierazteko (*Austro-Prussian War, Russo-Turkish Wars, Russo-Japanese War, Franco-German War, Polish-Soviet War, Sino-Japanese War*), badirudi tandem elkarteak egokiagoak

gertatzen direla euskaraz adjektibo konposatuen bidezkoak baino, euskaraz ez baita oso ohikoa, orain artean bederen, NONGOTAR GERRA edo GERRA NONGOTARRA eredu. Adibidez:

es guerra austro-prusiana

en Austro-Prussian War / Prussian–German War

fr guerre austro-prussienne

Euskaraz adierazteko, egokia da *Austria-Prusia gerra* moldea (buru biko hitz-elkartea edo tandem elkartea). Izan ere, *Bilbo-Behobia autobidea* hitz-elkartea *Bilboren eta Behobiaren arteko autobidea* izen-sintagmaren sinonimoa den moduan, halaber da *Austria-Prusia gerra* hitz-elkartea *Austriaren eta Prusiaren arteko gerra* izen-sintagmaren sinonimoa.

Beste hainbeste esan liteke, adibidez, itunei buruz: *Franco-Russian Alliance*, *pacte germano-soviétique*, *pacto franco-italiano* direlakoak honela adieraz daitezke euskaraz: *Frantzia-Errusia Aliantza*, *Alemania-Sobietar Batasuna Ituna*, *Frantzia-Italia Ituna*, eta ez da beharrezkoa *Aliantza Franko-errusiarra*, *Itun Germano-sobietarra*, *Itun Franko-italiarra* moldera jotzea.

Beste batzuetan, berriz, beharrezkoak gertatzen dira adjektibo konposatuak. Leku-izenetan, adibidez **Anglo-normandiar uharteak** (*islas Anglo-normandas; îles Anglo-normandes*) eta **Sudan Anglo-egiptoarra** (*Sudan Anglo-Egipcio; Soudan anglo-égyptien; en Anglo-Egyptian Sudan*) arautu ditu Euskaltzaindiak, beste aukerak ilunagoak, bihurriagoak edo luzeagoak gertatzen zirelako. Baina, adibidez, **Indus-Gangesetako lautada** (*llanura Indo-Gangética; plaine indo-gangétique; Indo-Gangetic Plain*) forma hobetsi zen⁶, esanahia argia zelako (Indus eta Ganges ibaien lurraldea).

Izena abstraktua denean, edo adjektibo-izaera gailentzen denean, egokiak dira jatorri-adjektibo konposatuak. Halakoetan, NOLAKO izaera NONGO izaerari nagusitzen zaionean, izenondo gisa erabili ohi dira, laguntzen dioten izenetik eskuinera paratuak (*jatetxe txinatarrak* esatean ere, NOLAKO nagusitzen da erabat, eta ez NONGO); nolahi ere, ez dirudi hor ordenazio-arau garbi-garbirik dagoenik, baina bai joera nagusi bat, behintzat. Adibidez:

- *Tradizio judu-kristaua*
- *Borroka greko-erromatarra*
- *Musika afro-brasildarra*
- *Eliza greko-errusiarra*

⁶ *Bizkai-Gipuzkoetako burdingintza* edo *Gipuzkoa-Nafarroetako muga* gisakoen molde tradiziodunean bezala.

- *Institutu franko-amerikarra*
- *Bombayko eskola franko-indiarrak*
- *Zuzenbide anglo-amerikarra*
- *Hizkuntza tibeto-birmaniarrak*
- *Hizkuntza uralo-altaikoak*
- *Hizkuntza sino-tibetarrak*
- *Afro-asiar hizkuntzak*

4 Herritar-izen eta jatorri-adjektibo konposatuen idazkera

Horrelako herritar-izen eta jatorri-adjektibo konposatuak koordinazio-elkarteak dira, eta, izenak zein adjektiboak izan, marratxoz idaztekoak dira, euskarazko gainerako koordinazio-elkarteak bezala: *talde zuri-gorria, ikastaro teoriko-praktikoa, seme-alabak, neska-mutilak...* Adibideak:

- *Anglo-normandiar uharteak*
- *Sudan Anglo-egiptoarra*
- *Musika afro-kubatarra*

Salbuespenak: leku-izen konposatu batetik eratorria denean, loturik idazten da. Adibidez, *Hispanoamerika, Latinoamerika* eta *Eurasia* leku-izenetatik, *hispanoamerikar, latinoamerikar* eta *eurasiar* eratortzen dira (eta ez **hispano-amerikar, *latino-amerikar* eta **euro-asiar*). Bestalde, *indoeuropar* ere salbuespena da, loturik idazten baita.

5 Herritar-izenak eratzeko bi bideak

Leku-izenetik abiatuta herritar-izenak eta izenlagun erreferentzialak sortzeko, bi bide ditu euskarak: mailegatzea eta eratorpena.

Mailegatzea ez da prozedurarik erabiliena. Hala ere, badira maileguzko herritar-izen batzuk oso ezagunak eta erabiliak, eta hiztegieta agertzen dira. Adibidez:

aleman, bretoi, espainol, frantses, gaskoi, katalan, portuges...

Alabaina, eratorpena da prozedurarik emankorrena eta erabiliena: **-(d)(t)ar** atzizkia eranstea leku-izenari (ez **-iar** aldaera). Adibidez:

alemaniar, bearnotar, espainiar, frantziar, irlandar, madrildar, paristar, portugaldar...

Leku-izenari eransten zaio atzizkia. Beraz, ez dira onargarriak leku-izenaren zati bati, erdal herritar-izenari edo erdal herritar-izenaren parte bati euskal atzizkia erantsita lortzen diren hibridoak⁷. Adibidez:

**belgiar (belgikar), *europear (europar), *egipziar (egiptoar), *israeliar (israeldar), *kanadiar (kanadar), *katalandar (katalan), *kuwaitiar (kuwaitar), *pakistaniar (pakistandar), *vietnamiar (vietnamdar)...*

Eratorkpena baliatzen denean, zalantza izaten da atzizkiaren zer aldaera erabili: **-ar, -dar** edo **-tar**. Euskal Herriko leku-izenetan, tokian tokiko tradizioak finkatu ditu herritarren izenak, eta ez dago, beraz, alde zuretik jakiterik atzizkiaren zer aldaera dagokion leku-izen bakoitzari. Horregatik, hiztegi-tara edo arauetara jo behar da forma egokiaren bila. Euskaltzaindiak, Euskal Herriko udal-erri guztietako izenak arautzeaz batera, udal-erri bakoitzari dagokion herritar-izena ere arautu du, eta *Hiztegi Batuan* ere sistematikoki jaso dira guztiak.

Gure bi auzo-erdaretan are konplexuagoa da kontua: atzizki ugari daude herritar-izenak sortzeko, eta ez dago aurretik jakiterik zer atzizki erabili behar den. Gaztelaniaz, esaterako, hauek dira erabilienak: **-aco / -aca**: *austríaco* edo *austriaco*; **-ano / -ana**: *tudelana*; **-ata**: *keniata*; **-eco / -eca**: *guatemalteco*; **-ego / -ega**: *manchega*; **-eno / -ena**: *chileno*; **-ense**: *bonaerense*; **-eño / -eña**: *limeña*; **-eo / -ea**: *uropeo*; **-ero / -era**: *habanera*; **-és / -esa**: *pamplonés*; **-eta**: *lisboeta*; **-í**: *iraní*; **-ín / -ina**: *mallorquina*; **-ino / -ina**: *granadino*; **-ita**: *israelita*; **-o / -a**: *rusa*; **-ol / -ola**: *español*; **-uno / -una**: *villavicenciuna*.

Frantsesez, berriz, hauek dira erabilienak: **-ain(e)(s)** edo **-in(e)(s)**: *Chapelains, Chapelaines*; **-ais(e)(s)**: *Bayonnais, Français*; **-an(e)(s)**: *Mosellans*; **-ard(e)(s), ar(e)(s)** edo **-art(e)(s)**: *Chamoniards, Savoyards*; **-asque(s)**: *Monégasques*; **-aud(s) / -aude(s)**: *Pelauds*; **-eau(x) / -elle(s)**: *Tourangeaux*; **-enien(ne)(s)**: *Quiténien(s)*; **-i(s)**: *Qataris*; **-ien(ne)(s), -in(e)(s)** edo **-éen(ne)(s)**: *Italiens, Monténégrins; Parisiens*; **-iote(s), -ote(s)**: *Caiotes, Chypriotes*; **-iste(s)**: *Douarnenistes*; **-ite(s)**: *Malawites, Karachites*; **-ois(e)(s)**: *Amiénois, Lausannois, Bruxellois*; **-on(ne)(s)**: *Bretons, Bretonnes*; **-ou(se)(s)**: *Miaulétois*.

⁷ Salbuespenak araututa daude: *afganiar, irakiar, daniar*. Bestalde, hemen ez dira kontuan hartu erabilera sektorial mugatu itxiak, hala nola kronoestratigrafiakoa eta geokronologiakoa, non sistematikoki erabili ohi baita **-iar** atzizkia estaiak eta adinak izendatzeko (*Ypresiarra, Lutetiarra, Burdigaliarra, Aptiarra, Cenomaniarra...*).

Beraz, gaztelaniaz eta frantsesez, hiztegi eta entziklopedietan kontsultatu behar da toki bakoitzeko herritar-izenak jakiteko.

Euskaraz, atziki bakarra izanik (mailegu bidezkoak kontuan hartu gabe), atziki horren zer aldaera dagokion dugu zalantza bakarra: **-ar**, **-dar** edo **-tar**. Kanpoko leku-izenen herritar-izenei dagokienez, badira tradizioak finkatutako batzuk, hala nola *erromatar* (Axularrek, adibidez, *erromatar* idatzi zuen; dena dela, tradizioan, *erromatar* formarekin batera, *erromar* eta *erromano* forma ere ageri dira. Nolanahi ere, *erromatar* forma da ugariena tradizioan, eta horregatik arautu da horrela) edo *paristar*, baina gehien-gehienek ez dute tradiziorik, edo tradizioan ez da ageri grafia-batasun handirik.

Horregatik, munduko estatuen izenak eta hiriburuak arautu zirenean (38. araua), halaber arautu ziren, sistematikoki, estatu eta hiriburuetakoa herritar-izenak. Beste hainbeste egin zen Antzinateko eskualdeen eta hirien arauetan ere (142. eta 147. arauak, hurrenez hurren). Eta hiru arau horietako herritar-izen guztiak sarrera dira *Hiztegi Batuan*.

Harrezkero, munduko beste leku-izen asko arautu dira, baina, leku-izenekin batera, ez dira herritar-izenak arautu.

Gertatzen da, zenbaitetan, leku-izen arautu horietako batzuetako herritar-izenak erabili beharra, eta orduan ager daiteke adierazitako zalantza hori: alegia, atzizkiaren **-ar**, **-dar** edo **-tar** aldaera erabili behar den.

Euskaltzaindiak arautu dituen kanpoko leku-izenen herritar-izenak finkatzeko, analogia erabili da. Hau da, aztertu da Euskal Herriko udaletako herritar-izenetan (600 baino gehiago dira) zein diren joera nagusiak (aski argiak dira), bai eta Euskal Herrikan kanpoko leku-izenetatik eratorritako herritar-izen arautuak ere (beste 600 baino gehiago), eta joera horietatik inferitu edo ondorioztatu dira arau gisako gidalerro batzuk, kasu bakoitzean atzizkiaren zer aldaera erabili jakiteko. Joerak argiak dira, baina badira salbuespenak ere; eta, salbuespenetan, badu zerikusirik eufoniak. Adibidez, bi silaba baino gehiago izanik *-a* letraz bukatzen diren leku-izenetan, atzizkiaren **-ar** aldaera erabiltzen da (*Brusela* ⇒ *bruselarrak*, *Lisboa* ⇒ *lisboarrak*, *Tegucigalpa* ⇒ *tegucigalparrak...*), baina leku-izenaren azken silaba **-rra** baldin bada, nekeza litzateke **-ar** atzizkia erabiltzea (*Calahorra* ⇒ *calahorrarrak*); horregatik, halakoetan, errazagoa da **-tar** aldaera erabiltzea (*calahorratarrak*); beste hainbeste, adibidez, *Alpujarra* kasuan ere (*alpujarratarrak*).

Gidalerro edo irizpide horiek zehaztuta eskaintzen dira gomendio honetan, adibide ugaz hornituak, erabiltzaileek tresna bat izan dezaten arautu gabeko herritar-izenen bat sortu beharra izanez gero.

6 Atzerriko leku-izenetatik herritar-izenak eratzeko gidalerroak

Oharra: adibideetan, letra etzanez ematen dira herritar-izen arautuak; arautu gabeak, berriz, letra etzan lodiz.

Leku-izena bokalez amaitua

Leku-izenaren amaiera	Atzikiaren aldaera	Adibideak
a (toponimoa silababakarra edo bi silabakoa bada)	-tar	<i>dhakatar, praiatar, suvatar, ghanatar, akkratar, kubatar, rigatar, limatar, dohatar, bernatar, tongatar, pragatar, txinatar, portvilatar, sanatar, mantxatar</i> Salbuespen arautuak: <i>maltar, troiar</i>
a (toponimoak bi silaba baino gehiago baditu)	-ar	<i>tiranar, luandar, canberrar, galiziar, kanariar, manamar, bruselar, sofiar, bujumburar, asmarar, bratislavar, ljubljantar, addisabebear, manilar, tegucigalpar, ottawar, habanar, lisboar, ginear, korear, eritrear, andaluziar, asturiar⁸, bartzelonar, errioxar, extremadurar, gaztelar⁹, kantabriar, murtziar, pikardiar, martinikar</i> Salbuespen arautuak: <i>andorratar, erromatar, judeatar</i>
e	-tar	<i>sanjosetar, eiretar, herbeheretar, belizetar, zipretar, txiletar, zimbabwetar, hararetar, mozambiketar, saotometar, seychelletar</i> Salbuespen arautuak: <i>kottear, trinitatear</i>
i	-ar	<i>bangiar, abudhabiar, burundiar, djibutiar, fjiar, helsinkiar, haitiar, newdelhiar, nairobiar, bairikiar, moroniar, tripoliar, malawiar, maliar, niameiar, kigaliar, aragoiar</i> Salbuespen arautuak: <i>afrikaerdiar, bruneitar, paraguaitar, taipeitar, uruguaitar, hanoitar, zeelandaberritar</i>
y	-iar (y → i)	<i>(Konakry) konakriar, (Port Moresby) portmoresbiar, (Canterbury) canterburiar</i>
o	-ar	<i>portonovoar, jamusukroar, sarajevoar, burkinafasoar, santodomingoar, egiptoar, quitoar, malaboar, kongoar, lesothoar, libanoar, antananarivoar, bamakoar, marokoar, majuroar, monakoar, maputoar, osloar, sanmarinoar, damaskoar, muqdishoar, kolonboar, paramariboar, togoar, montevidеоar, vatikanoar</i> Salbuespen arautuak: <i>kairotar, tokiotar, luxenburgotar, mauriziar, santiagotar, kartagotar</i>

⁸ Asturias leku-izenaren amaierako -s letrak plurala adierazten du, eta ez da kontuan hartu herritar-izena eratzeko.

⁹ Gaztelar formaz gainera, bada *gaztelau* forma ere, eta biak dira tradiziodunak. Gaztelako herritarra adierazteaz gainera, gaztelaniaz mintzo direnak adierazteko ere erabili izan dira.

Leku-izenaren amaiera	Atzikiaren aldaera	Adibideak
u	-ar	<i>estatubatuar, emirerribatuar, maseruar, chisinauar, vanuatuar, urartuar, nauruar, palauar, jammuar, korfuar, timbuktuar, ouluar, aktauar, tiziuzuar</i> Salbuespen arautuak ¹⁰ : <i>tuvalutar, uagadugutar, roseautar, katmandutar, bakutar, nassautar, thimphutar, moskutar, bissautar, perutar</i>

Leku-izena kontsonantez amaitua

Leku-izenaren amaiera	Atzikiaren aldaera	Adibideak
l / m / n	-dar	<i>kabuldar, madrildar, amsterdandar, jerusalemendar, berlindar, kamerundar, leondar, reuniondar</i>
f, g, j, p, q, r, s, x, z	-tar	<i>aljertar, salvadortar, barbadostar, londrestar, lapaztar, luxemburgar, vaduztar, balkhaxtar, bandungtar, baranoftar, beneluxtar, burgostar, châteaurouxatar, clujtar, cherbourgatar, danzigatar, gaziantepatar, göteborgatar, jekaterinburgatar, kitlineqatar, lugojar, maikoptar, mainztar, marrakexatar, najafatar, phoenixatar, riftar, sanikiluaqatar, wessexatar</i> Salbuespen arautuak: <i>piongiandar</i>
h (kontsonante ondoren)	h-aren aurreko kontsonanteari dagokiona	<i>phnompenhdar, bangladeshtar, karkemishtar, kishtar, lagashtar, bandaacehtar, perthar, auchtar, greymouthar, christchurchatar, karabakhtar</i>
h (bokal ondoren)	-tar	ramallahtar, kermanxahtar
ts	-star ¹¹	(Saint Kitts) <i>sankistar</i> , (Txerepovets) txerepovestar
tx	-xtar	(Felanitx) felanixtar , (Halytx) halyxtar , (Vaigatx) vaigaxtar
tz	-ztar	(Metz) meztar
k / c	-tar	<i>shuruppaktar, uruktar, windhoektar, quebectar, armagnactar, aurillactar, newyorktar</i> Salbuespen arautuak: <i>minskar, reykjavikar, bixkekar, bangkokar, irakiar</i>
t	-ar	<i>bukarestar, budapestar, kuwaitar, beirutar, rabatar, nuakxotar, maskatar, saintvincentar, asgabatar, taxkentar, nazaretar, ugaritar</i>
d	-ar	<i>belgradar, islamabadar, riadar, txadar, zululandar, (Fort Liard) fortliardar, (Port Hedland) porthedlandar</i>

¹⁰ Salbuespen arautu ugari badago ere, garbi dago -ar amaiera guztiz nagusi dela -u bokalaz amaitutako Euskal Herriko udalerrietako herritarren izenetan (*altsasuar, arantzazuar, arbizuar, arratzuar, bakaikuar, basaburuar, berriatuar, beteluar, bariatuar, burguar, deikazteluar, ermuar, erromantzatuar, zaraitzuar, etaiuar, foruar, gamuar, gazteluar, haltsuar, itsasuar, itzaltzuar, jatsuar, kanpezuar, larrabetzuar, leaburuar, maeztuar, mañeruar, mutrikuar, puiuar, tirapuar, urretxuar, zarrakazteluar*). Gutxi dira -tar amaierakoak (*altzürükütar, basabürütar, donapaleutar, galipentzutar, ibarrangelutar, loiutar, ziburutar*).

¹¹ Euskal Herriko udalerrietako herritar-izenetan, sistematikoa da, leku-izenaren amaieran -tz edo -tx kontsonante-bikotea gertatzen denean, -tz + -ar ⇒ -ztar (*Zarautz, zarauztar*) eta -tx + -ar ⇒ -xtar (*Urdatx, urdaxtar*) egitea. Hala eskatzen du euskararen fonologiak. Leku-izena kanpokoia izanda ere, analogia aplikatuz, molde bera dagokio (*Txerepovets ⇒ txerepovestar; Felanitx ⇒ felanixtar; Metz ⇒ meztar*).

Leku-izenaren amaiera	Atzizkiaren aldaera	Adibideak
		Salbuespen arautuak: <i>akadtar, nimrudtar</i>
b / v / w¹²	-tar	<i>kievtar, chorzówtar, dezhniovtar, glaskowtar, lvivtar, kharkivtar, kolguievtar, magrebtar, moabtar, pskovtar, saratovtar, telavivtar, wroclawtar</i> Salbuespen arautuak: <i>zagrebar</i>

Oharrak:

- Leku-izena bi hitzez edo gehiagoz osatuta izan arren, hitz bakarrekoa da herritar-izena: (*Estatu Batuak*) *estatubatuar*, (*Costa Rica*) *costarricar*, (*Porto Novo*) *portonovoar*, (*Addis Abeba*) *addisabebear*, (*Port-of-Spain*) *portofspaindar*, (*Kaledonia Berria*) *kaledoniaberritar*. Zenbaitetan, ordea, hitzetako bat — eskuarki, lehena— nagusi izaten da, eta nahikoa da hari eranstea atzizkia. Adibidez, (*Miranda de Ebro*) *mirandar*, (*Ejea de los Caballeros*) *ejea*, (*Digne-les-Bains*) *dignetar*.
- Berez, edozein leku-izenetatik erator daiteke herritar-izena. Baina, askotan, ez da beharrezkoa, eta ohikoagoa da leku-genitiboa erabiltzea. Adibidez, *Nire laguna newyorktarra da; haren senarra, berriz, telavivtarra* esaldia zuzena eta egokia da, baina ohikoagoa da *Nire laguna New Yorkekoa da; haren senarra, berriz, Tel Avivekoa* esatea eta idaztea. Horretaz gainera, kontuan izan behar da zenbait leku-izenek izaera administratibo hutsa dutela, eta, askotan, tradizioz gabekoak direla; halakoetan, ez da erabiltzen herritar-izena, leku-genitiboa baizik. Hori oso nabarmena da leku-izen konposatueta. Adibidez, *Nord-Pas de Calais*, *Languedoc-Roussillon* edo *Polinesia Frantsesa* leku-izenetatik, *nordpasdecalaistar*, *languedocroussillondar* eta *polinesiar-frantses* herritar-izenak erator litezke, teorikoki behintzat, baina ez luke zentzu handirik hala jokatzek. Hori gabe, normalagoa da *Nord-Pas de Calaiskoa*, *Languedoc-Roussillongoa* eta *Polinesia Frantsesekoa* erabiltzea.

Euskaltzaindiak 2015eko ekainaren 26an, Baionan, irailaren 25ean, Elizondon, eta azaroaren 27an, Bilbon, onartua.¹³

¹² Kontsonanteen artean sailkatu da hemen, leku-izenari dagokion hizkuntzan kontsonante- edo bokal-balioa duen kontuan hartu gabe.

¹³ Letra larrien erabilerari buruzko oharra, 1. oin-oharra, 2016ko irailaren 30ean, Iruñean, onartua.